

## Xedea, ikuspegia, balioak

### **Xedea**

- Ezagutzaren hedapena eta zabalkundea, bereziki UPV/EHUn sortutakoarena, Euskaditik eta nazioarteko proiektioarekin.
- Ezagutza profesionalen eguneratzea, maila guztietako irakasleen prestakuntzari arreta berezia eskainiz.
- Unibertsitateen arteko harremana.
- Euskal kultura eta ikasketak nazioarte mailan hedatu eta irakastearen alde egitea.
- Aldatzen ari den gizarte baten inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikorako eremu bat eskaintzea, horrela, gizarte ongizatea, eta bereziki Euskal Herrikoa, hobetzen lagunduz.

Uda Ikastaroen xede osagarria UPV/EHUren eta erakunde laguntzaile eta babesleen irudi positiboa helaraztea da.

Bere Xedea zabaltzeko, Ikastaroak Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakunde eta instituzioekin lankidetzan aritzeko prest daude.

### **Ikuspegia**

“Uda Ikastaroen guztien artean erreferentziazko Ikastaroak izatea dute xede UPV/EHUko Uda Ikastaroek, beren prestakuntza programak eta formulak etengabe berritzeagatik, nazioarteko proiektioagatik, eskaintzen duten balio erantsiagatik, beren aliantza sarearen hedapen eta sendotasunagatik, Herriarekiko konpromisoagatik eta bere antolakundearen kalitateagatik”

### **Balioak**

1. **Kudeaketa autonomia** "Uda Ikastaroak Fundazioaren" baitan.
2. **Errespetua** ideia aniztasunari.
3. **Malgutasuna** egoera aldakorretara egokitzeko gaitasun bezala ulertuta.
4. **Iraunkortasun** ekonomikoa, finantzarioa eta antolakuntzako.
5. **Berrikuntzaren kultura** jardueraren kudeaketa, egitura eta garapenean, ekintzailatza sustatuz.
6. **Koherentzia** Xedearekiko errespetu gisa ulertuta
7. **Gardentasuna** edo "egiten dena esatea, esaten dena egitea, eta kontuak ematea".
8. **Nortasuna** Euskal Herrian errotua eta UPV/EHUren leloari jarraituz munduari irekia: EMAN TA ZABAL ZAZU.
9. **Pertsonak aintzat hartzea** "barne bezeroaren" ideia baino haratago, antolakundearen funtsezko muin gisa.
10. **Lankidetzarako jarrera** UPV/EHUko Ikastegi, Sail eta Institutuen, bestelako Unibertsitate, Erakunde, antolakunde, gizarte eta kultura elkarten eta enpresen aurrean.